

ilean argitaratuko deguna urteko lau zenbakien ordezkio izango da.

III.—Azkue jaunak irakurri digu bere lan baten jarraipena : *Evolución de la lengua vasca* ta Oihenart zanaren lanetatik ateratako *adizkerak* azaldu dizkigu.

IV.—Euskaltzaindiak iztegi-lanean asti luzea igarodu. Orfarako izendatu zan batzordeak ekañi dizkion itzak aztertu ditu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzaren areto nagusian 1929'ko Lotazila'ren 19'an.

Aipatzen diran euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue, maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitz egin da.

I.—Azkue jaunak esan digu : Bizkañ'ko Aldundi ta Bilbo'ko Udaleko buruekin itz egin duela, *Bellas-Artes*'ko Jauregi beñian tokitxoren bat eman dizaguten. Oraingo ikeñaldian esan diote : tokitxo ori guri emateko ez daukatela alderdi eñezik. Rotaetxe jaunarekin itz egiteko Ormaetxea jauna gelditu da.

II.—Lakonbe jaunak Leizañaga-ren Testamentutik ateratako adizkerak irakurri dizkigu.

III.—Azkue jaunak euskal-esakunak, eta beste lan batzuek bigaramonerako utzirik, otoitzez amaitu da batzaraldi au.
